



Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Laburpena

2018ko irailean, Diputatuen Kongresuaren osoko bilkuran, Artistaren Estatutuari buruzko txostena onetsi zen, legegintzako ibilbide-orritzat jotzen dena. Behatokiak azterketa bat eskaini dio proposamenari, egungo arauketaren eta etorkizuneko aukeren informaziozko deskribapen sintetikoa egiteko eta arazoa testuinguruan kokatzeko helburuarekin, sektoreaz eta Estatuko testuinguruaz haraindi.

Hasteko, txostenak arte-lanaren berriazkotasuna aletzen du; hain zuzen, lanaren behin-behinekotasuna eta kolektiboaren heterogeneotasuna direla-eta, zaila da egungo legegintza-testuinguruan sartzea. Arazo horrek zenbait diskriminazio dakartza zergen, gizarte-babesaren eta lan-babesaren ikuspuntutik; hortaz, legeria berriaren beharra justifikatuta dago. Jarraian, Artistaren Estatutu Berriaren proposamenaren edukia laburbiltzen da eta egin daitezkeen aurrerapenen arloan EAerako dauden aukeren berri ematen da. Begirada osatzeko, nazioartean atzemandako elementu esanguratsuenak aztertzen dira. Gogoetarako elementu berriak dakartzaten ekimenak dira. Horretarako, halaber, garrantzitsua da kontuan hartzea Artistaren Estatutu Berriaren inguruko arazoa ongizate-estatuen konfigurazioari buruzko eztabaiden eremuan kokatzen dela. Izan ere, arte- eta kultura-lanaren legezko esparruak ezin dira herrialde bakoitzaren historia eta kultura instituzionaletatik banandu politika publikoei (lan-arlokoiei, zerga-arlokoiei...) dagokienez. Horregatik, kapitulu bat eskaintzen zaio kontuari buruzko ikuspegi zabalari, ongizate-estaturez, lan-merkatuez eta Europaz hausnartzeko asmoz.

Ondorioetan, sektorerako eta EAerako aukerak laburbiltzen dira eta zerga-sistemaren eta gizarte-babesaren arloan jarduteko aukerak planteatzen dira, sektorea antolatzearen garrantzia bistatik galdu gabe.

Hitz batean, “Artistaren Estatutu Berriaren” helburuak zera izan behar du: artistek eta kultura-arloko profesionalak bidezko lan-baldintzak eta bizi-baldintzak dauzkatela ziurtatzea, baita gainerako langileen eskubide (eta betebeharrak) berberak ere; Artistaren Estatutua ez da inola ere pribilegioa. Asmoa ez da zehazki “arteaz bizi” ahal dela ziurtatzea; aitzitik, horretan aritzea, lanaldi osoan zein ez, modu erregularrean zein ez, beste edozein aukera bezain irisgarria izatea nahi da, sortzaileak zigortzea saihestuz. Hori bereziki garrantzitsua da kulturaren balio publikoa aintzat hartuta: haren onura sozialen alde egin nahi bada, sorkuntza artistiko eta kulturalaren baldintza egokiak ziurtatu behar dira.

Synopsis

In September 2018, the report on the Statute of the Artist was approved in Plenary Session of the Congress of Deputies, which is understood as a legislative roadmap. The Observatory devotes a study to the proposal in order to offer a synthetic and informative portrait of current regulations and perspectives for the future, as well as in order to contextualise the problem beyond the sector and the Spanish context.

The report begins by spelling out the specificity of artistic work, characterised by the eventuality and heterogeneity of the collective, which results in difficulties fitting it into the current legislative context. This problem is crystallised in a series of discriminations from the tax and social/labour protection point of view which justify the need for new legislation. Below, the contents of the proposal of the New Statute of the Artist is summarised, also noting the perspectives for Autonomous Community of the Basque Country regarding possible advances. We complete our look with an analysis of the most significant elements detected on the international scene. These are initiatives which provide new elements for us to reflect on. To do so, it is also important to take into account that the problem around the New Statute of the Artist is framed within the debates on the configuration of welfare states. In fact, the legal frameworks of artistic and cultural work cannot be torn out of the international institutional history and culture of each country with regard to public policies (labour, fiscal, etc.). This is the reason why a chapter is devoted to offering a wide perspective of the matter, reflecting on welfare states, labour markets and Europe.

Within the conclusions, perspectives are synthesised for the sector and for the Autonomous Community of the Basque Country itself, putting forward possibilities of action in matters of taxation and social protection without losing sight of the importance of the articulation of the sector.

In short, the “New Statute of the Artist” must be thought of as a way of ensuring that artists and culture professionals have fair work and life conditions, with equal rights (and obligations) as other workers; a Statute of the Artist is not, under any circumstance, a privilege. It is not a case of ensuring that it is possible to “earn a living from art”, but simply that working in art, regularly or not, full-time or not, is an option as accessible as any other, avoiding penalising creative people. This is especially relevant from the point of view of public value of culture: if we want to defend its social benefits, we need to ensure the conditions for artistic and cultural creation are available.

Résumé

En septembre 2018, la plénière de l'Assemblée des Députés approuvait le rapport sur le Statut de l'Artiste, qui tient lieu de feuille de route législative. L'Observatoire consacre une étude à cette proposition afin d'offrir un portrait synthétique et une information sur la réglementation actuelle du secteur et ses perspectives d'avenir, ainsi que pour élargir la problématique au-delà du contexte du secteur et de l'État.

Le rapport commence en énumérant les spécificités du travail artistique, dont les caractéristiques de précarité et l'hétérogénéité du collectif rendent difficile l'accommodement au cadre législatif actuel. Cette problématique se manifeste dans une série de discriminations de type fiscal et en matière de protection sociale/professionnelle, qui justifient la nécessité d'une nouvelle législation. Ci-après est résumé le contenu de la proposition du Nouveau Statut de l'Artiste, qui se penche cette fois sur les perspectives d'améliorations potentielles pour la Communauté Autonome Basque. Le tableau se complète d'une analyse des éléments les plus significatifs détectés sur la scène internationale. Ce sont des initiatives qui apportent de nouveaux éléments pour la réflexion. À cette fin, il est également important de se rappeler que la problématique autour du Nouveau Statut de l'Artiste s'inscrit dans les débats sur la configuration des États-providence. D'ailleurs, les cadres légaux de l'emploi artistique et culturel ne peuvent être dissociés de l'histoire et de la culture institutionnelle de chaque pays par rapport aux politiques publiques (professionnelles, sociales, fiscales...). C'est la raison pour laquelle un chapitre entier est consacré à élargir la perspective sur cette question à travers une réflexion sur les États-providence, les marchés du travail et l'Europe.

Les conclusions synthétisent les perspectives pour le secteur et pour la propre Communauté Autonome Basque, en envisageant d'éventuelles mesures à prendre en matière de fiscalité et de protection sociale, sans perdre de vue l'importance de l'articulation du secteur.

En définitive, le « Nouveau Statut de l'Artiste » doit être élaboré comme un moyen de garantir aux artistes et aux professionnels de la culture des conditions de travail et de vie justes, avec les mêmes droits (et obligations) que le reste des travailleurs ; un Statut de l'Artiste n'est en aucun cas un privilège. Il ne s'agit pas tant d'assurer la possibilité de « vivre de l'art » que de tout simplement permettre que son exercice - de manière régulière ou non, à plein temps ou non - soit une option aussi accessible qu'une autre, en évitant de pénaliser les créatifs. Ceci est particulièrement important si on considère la valeur publique de la culture : si nous voulons défendre ses bienfaits sociaux, il est indispensable d'assurer les conditions de la création artistique et culturelle.

Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak

1_Aurkezpena _6

2_Arazoa: lan artistikoaren berriazkotasuna _7

3_Gaur egungo lege-testuingurua _10

3.1. Historia laburra _10

3.2. Egungo arauketa: testuinguru orokorra _11

4_Etorkizunerako proposamena: Artistaren Estatutu Berria” _12

4.1. Zerga-sistema _12

4.2. Lan-babesa eta Gizarte Segurantza _14

4.3. Diru-sarreraren bateragarritasuna _18

5_Sektorearen zerga- eta lan-arauketa nazioartean _20

5.1. Zerga-sistema _20

5.2. Lan-babesa eta Gizarte Segurantza _21

6_Sektoreaz haraindi: gogoeta orokorrerako esparrua _23

6.1. Gizarte-babesa eginkizun _23

6.2. Nazioarteko konparaketa: gizarte-ongizateko araubideak _24

6.3. Europako elkarganatzea _25

7_Ondorio gisa _27

7.1. Sektorerako aukerak _27

7.2. EAErako aukerak _28

Aurkezpena

2018ko irailean, Diputatuen Kongresuaren osoko bilkuran, Artistaren Estatutuari buruzko txostena onetsi zen. 75 puntu eta 60 neurri baino gehiago biltzen ditu, kulturaren ekosistemaren prekaritatea saihesteko eta haren jasangarritasunaren alde egiteko. Parlamentuan ordezkaritza zuten indar guztien aldeko botoarekin onetsi zen eta datozen urteetarako legegintzako ibilbide-orrizat hartzen da.

Kultura-eskubideak eta kultura-arloko jasangarritasuna izan dira Kulturaren Euskal Behatokiak duela gutxi landu dituen gaietako bi. Horietako lehenengoan, kultura-eskubideek edukirik gabe ez geratzeko izan beharko lituzketen gutxieneko konpromisoak planteatzen dira, asmo onen erretorika gainditzeko helburuarekin. Jasangarritasunari laguntzeko helburuarekin, eskubideon artean artisten lan-baldintzak, egile-eskubideak eta kultura-sektoreko lanbide-garapena eta lanbide-prestakuntza zaintzeko xedea duten neurriak biltzen dira.

Bestalde, 2022rako Kultura Planaren lehen tasunezko ildoetako bat sortzaileen lan-baldintzen hobekuntza da. Nabarmentzen da “arreta berezia” eskatzen duela eta kultura-politiketan duintasun profesionalagatik kezka txertatu behar dela. Planak dioenez, euskal testuinguruan erabakitzen diren neurriek Espainiako Gobernuaren Artistaren Estatutuari buruzko txostenean planteatutakoekin koherenteak eta osagarriak izan beharko dute. Horrela, 1. konpromisoko lehen ekimena hau da: “Sortzaileen lan-baldintzak hobetzea prekaritateari aurre egiteko, sektore publikotik haien lanaren aitortzea sustatuz eta, zergen alderdian, haien jardueraren berariazotasuna babestuz”.

Esparru horretan, txostenak artearen eta kulturaren eremuan diharduten pertsonen lanbide-arazoez hausnartzen du, helburu nagusi hauekin:

- Egungo arauketaren eta etorkizuneko aukeren **informaziozko deskribapen sintetikoa** eskaintzea.
- Sektoreaz beraz eta estatuko testuinguruaz haraindi, arazoa **testuinguruan** sartzea.

Garrantzitsua da nabarmentzea horrek “Artistaren Estatutu Berria” delako proposamenaren edukia laburtzea eta azaltzea dakarrela, baina ez hori bakarrik:

1. Lehen atalean, artearen eta kulturaren arloko profesionalen diagnostikoa laburbiltzen da, zergen, gizarte-babesaren eta lan-babesaren alderdian arreta jarritz. Era berean, egungo lege-testuinguru laburtzen da.
2. Hurrengo atalean, Artistaren Estatutu Berriaren proposamenaren edukia aurkezten da, labur eta informazioa emateko asmoz, eta EAerako egin daitezkeen aurrerapenen arloan dauden aukeren berri ematen da.
3. Hirugarren atalean, nazioartean atzemandako elementu esanguratsuenak azaltzen dira, egungo egoera hobeto ulertzeko eta dauden beste ekimen batzuk irudikatzeko elementuak aurkezteko.
4. Jarraian, ondorioen aurreko azken atalean, kontuari buruzko ikuspegi zabala eskaintzen da, ongizate-estatuez, lan-merkatuez eta Europaz hausnartuz.
5. Azkenik, ondorioetan, sektorerako eta EAerako aukerak laburbiltzen dira.

2 Arazoa: lan artistikoaren berriazkotasuna

Nekez hitz egin daiteke artearen eta kulturaren eremuko profesionalen eskubideez kultura-ekosistemaren inguruabarrak kontuan hartu gabe. Enplegu edo ekonomia-jarduera jasangaririk gabe, sektorea osorik hartuta nekez izan ahalko da jasangarria. Ildo horretan, kalitate oneko lan-aukerak sortzea da asmoa, lan-baldintzei eta aukeraberdintasunari dagokienez.

Hasierako atal honetan, kultura-arloko profesionalek beren lanbidean aritzean bizi duten egoerak bereizgarri dituen elementu nagusiak laburki aurkezten dira, legeria berriaren beharra justifikatzen baitute.

Arazoak artisten eta kultura-arloko profesionalen lanen ezaugarri berezietan du oinarri, funtsean honako hauetan:

- **Lanaren behin-behinekotasuna**, lan egin duten eta lanik ez daukaten aldiak konbinatzen direnez jarduera aldi baterakoa izatea araua delako, eta ez salbuespena.
- **Kolektiboaren heterogeneotasuna**, horren barruan egoera eta behar desberdinak daudenez arautu beharreko gaia konplexuagoa delako.

Kultura-sektorearen bi ezaugarri horiek zergen, gizarte-babesaren eta lan-babesaren alderdietan dauzkate ondorioak, eta eremu horietatik hel dakioke artistek eta kultura-arloko profesionalek pairatzen duten diskriminazioa sortzen duen arazoari.

Zerga-sistemaren eremuan, honako hau atzematen da:

- **Zergen denbora-desoreka**: artisten eta kultura-arloko profesionalen lana irregularra da denboran. Proiektukako lanaren behin-behinekotasuna ez da bereziki garrantzitsua —edo ez da hori kontuan hartu behar den bakarra—; aitzitik, garrantzitsuena da lana sortze-prozesu eta ekoizpen-prozesu osoan etengabea izan arren diru-sarrerak ez direla horrelakoak. Arte- eta kultura-lana emaitza lortu bezain laster ordaindu ohi da; beraz, diru-sarrerak behin bakarrik jasotzen dira prozesu osoaren truke.

Hortaz, desoreka dago kobrantzaren eta tributatzeko betebeharraren artean, azken hori diru-sarrera egonkorretarako pentsatuta dagoelako. Hau da, ekitaldi batean ekitaldi bat baino gehiago har ditzakeen lan-prozesu oso baten emaitza diren diru-sarrerak tributatzeko dira, nahiz eta behin bakarrik kobratu. Gainera, fakturaren jaulkipena eta ordainketaren unea ez datoz beti bat.



- **Diru-sarrera ez-kulturalen osagarritasuna:** arte- eta kultura-lana, sarritan, egiten duen pertsonak jasotzen dituen diru-sarrera guztien osagarria izaten da, edo baita marjinala ere horiekin alderatuta.
- **Atxikipenen gehiegizko inpaktua:** diru-sarreraren eskasia sakondu egiten da atxikipen horiek egiteko betebeharretik ihes egin gabe tribututzen direnean eta faktura jaulkitzen den uneko tasa normaltan ordaintzen direnean.
- **Gastuen kenkaria:** arte- eta kultura-lanaren testuinguruan, "gastuak aktibatze" prozesu bat dago; hortaz, arte- edo sorkuntza-jarduera garatzeko materialen kostuak ez dira kengarriak diru-sarrerak sortu edo salmenta gertatu arte. Zaila da aurreikustea zein gastu egongo diren erlazionatuta obraren salmentarekin eta zein neurritan. Obra saldu arte, gastuak produktuaren zati den aktibo bat dira.
- **Araudiaren konplexutasunak eta inkoherentziak:** alde batetik, arte- eta kultura-lanaren bilakaeraren ondorioz, sektoreko eta haren balio-kateko figura berriak ez daude xedatuta gaur egun eta artelanaren oraingo definizioa oso kontzeptu tradizional batekin formulatuta dago. Horrek inkoherentziak sortzen ditu kasu batzuetan, adibidez, BEZean, edo gabeziak Ekonomia Jardueren Zergan (EJZ). Horrez gain, tributu-betebeharren multzoa oso zabala denez, jarduera betebeharrak guztiak betetz burutzeko administrazio-prozesua konplexua da.

Bestalde, gizarte-babesaren eta lan-babesaren eremuan, egoera honako honetan gauzatzen da zehatz-mehatz:

- **Ezkutuko lan-harremanak:** lan-harremanak merkataritza-harremanen azpian ezkututzen dira, eta horiek ez dagozkion kostuak, mota guztietakoak, eskualdatzen dizkiote artistari. Arte- eta kultura-lanaren beraren garapena administrazio-zereginekin zailtzen du, bidezkoa ez litzatekeen kasuetan. "Autonomo faltsu" izeneko figura da. Egiten dituzten lanen izaera irregularrak eta aldi baterakoak figura horren garapena errazten dute, baita aldi baterakoak eta irregularrak ez diren kasuetan ere, autonomo horiek eguneroko lana nola egiten duten kontuan hartuta.
- **Behin-behinekotasuna, prekarietatea eta kotizazio-oinarri baxuak:** behin-behinekotasunak diru-sarreraren eskasia sortzen du; ondorioz, kotizazio-oinarriak baxuak izaten dira eta, hortaz, ezinezkoa da langileak behar bezalako gizarte-estaldura edukitzea.

- **Diru-sarreraren ezegonkortasuna:** horrek prekarietate-kiribila sakontzen du, denboraren eta diru-sarreraren arteko beharrezko harremana dela eta: biziraupen-kontu batengatik (diru-sarrerak lortzeko beste lan batzuetan aritu beharagatik) arteari eta kulturari zenbat eta denbora gutxiago eskaini ahal izan, orduan eta aukera gutxiago arte- eta kultura-lanaz bizitzeko. Horrek zaildu egiten du sektoreko lanaz bizitzeari dagokionez lanbide-karrera egonkor eta duina funtsatzen duten gaitasunak eta ezagutza garatzea.
- **Diru-sarreraren eta prestazioen bateragarritasuna:** diru-sarreraren ezegonkortasuna dela-eta, diru-sarrera kulturalak prestazio publikoetatik datozen diru-sarrerekin bateragarri egin behar dira, berme gehiago eta lan-baldintza hobek dituen lanbide-karrera bat garatu ahal dela ziurtatzeko. Bateragarritasun hori zahartzaroko heldutasun artistikorako ere beharrezkoa da, arte- edo kultura-lana garatzearen (eta horren truke diru-sarrerak jasotzearen) eta erretiro-pentsioa kobratzearen artean hautatu behar ez izateko. Hori garrantzitsua da obra artistikoei balio publikoa dutelako eta helduaro artistikoan gara daitezkeelako kalitate oneneko eta interes publiko edo kultura handieneko lanak.
- **Ordezkaritasun sindikala eta profesionala:** lan-motaren (behin-behinekoa, zenbait enplegatzaileentzako...) eta lan autonomoaren kantitatearen ondorioz, zaila da sektoreko langileak antolatzea; hortaz, ezinezkoa da Administrazioarekin eta sektoreko enprekin hitz egitea negoziazio kolektiboaren bidez beraien interesak defendatzeko. Hitzarmen kolektiboak bereziki garrantzitsuak dira sektore bakoitzeko berariazko arauketetan.
- **Kontratu-praktikako informaltasunak eta abusuak:** kasu askotan, batez ere sektore jakin batzuetan, hitzezko kontratuak idatzizkoak baino ohikoagoak dira, eta horrek lekukotza zailtzen du ez-betetzeak frogatu behar direnean. Hori ikusmen-arteetan maiz gertatzen da; izan ere, ohikoa da erakusketetan denek (teknikariek, laguntzaileek, garraiolariek...) kobratzea artistak berak izan ezik, egilea izan arren. Idatzizko kontratua badagoenean ere gertatzen dira kontratu-arazoak. Horrelakoetan, oso ohikoa da negoziazio-tarterik ez egotea; aukera bakarra izaten da kontratuaren arabera askoz ere indartsuagoak izan ohi diren eragileen baldintzak onartzea ala ez onartzea. Kontratu horietan, sarritan egile-eskubideen nahitaezko lagapenak jasotzen dira, eskubideak lagatzea zerbitzuak ematearekin konbinatzen da, hirugarrenei lagapenak ematen zaizkie eta ez da egoten mekanismorik egile-eskubideen likidazioak kontrolatzeko. Sektore bakoitzean arazo zehatzak daude horri dagokionez.



- **Osasuna:** sektore garrantzitsu batzuek, hala nola arte eszenikoei lotutakoek, ez daukate ez laneko gaixotasunak aitortzeko modu zehatzik ez lan-osasuneko prebentziozko mekanismorik. Gainera, diziplina artistiko bakoitzean gaixotasun garrantzitsuak oso askotarikoak izan daitezke.
- **Lanbide-trantsizioa:** zenbait sektoretan, hala nola zirkuan, dantzan eta fisikoki gogorrek diren beste batzuetan, lanaren izaera bera dela-eta, adin jakin batzuetan zaila da lanbide-karrera bera etengabe garatzen jarraitzea. Kasu askotan, babes-mekanismorik gabe, ezinezkoa da arteari eta kulturari lotutako lanbide-karrera bat garatzen jarraitzea, erraza da prekarietatean amaitzea edo, beste kasu batzuetan, prekarietatea lan-mota horretan aritzeko asmoa kentzen duen faktorea izan daiteke.

Arazooi heltzeak lagungarria izan behar du kultura-lana baldintza berdinetan egiten dela bermatzeko, honako hau aintzat hartuz:

- Kultura lana da eta, lan guztiak bezala, bidezko ordainsaria merezi du, baita eskubide eta betebeharrak berberak ere, lanbide-karrera kulturalan garatzeko aukera beste sektore batzuekin parekatuz.
- Kultura-sektorean lan egiten duten pertsonen eskubidea daukate zergen arloan arazoiz, zentzuz eta ekitatez tratatuak izateko, haien lanen ezaugarriak kontuan hartuta, haien zerga-betebeharrak egokiro betetzea ahalbidetzeko.

Ezin zaio uko egin kontu horietan sakontzeari, herritarren kultura-eskubideak betetzen direla bermatzeko.

Azkenik, kolektiboaren heterogeneotasunarekin erlazionatutako alderdi batek, diziplina artistikoen arteko desberdintasunez haraindi doanak, egitate honekin dauka zerikusia: nahiz eta kultura-sektoreko lana jatorriz arte-lanetik sortu, haren ezaugarriak, azkenean, horren garapenari lotuta dauden edo horretarako funtzionalak diren lanetan daukate eragina. Horren ondorioz, arretagunea artistengandik kultura-arloko gainerako profesionalengana zabaldu behar da ezinbestean.

3_ Gaur egungo lege-testuingurua

Atal honetan, Artistaren Estatutu Berriaren proiektua garatzen den testuinguruaren irudia eskaintzen da, historia eta legea kontuan izanik. Kultura-arloko profesionalei dagokien legeriaren bilakaera laburbiltzen da, baita egungo egoera ere.

3.1 Historia laburra

Egoera honen aitortpena ez da berria. Lehen arauketa, artisten araubide berezi gisa, 1970ekoa da¹. 1986tik, ikuskizun publikoetako artistak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta daude (eta aipagarria da liburu-idazleak Langile Autonomoen Araubide Berezian daudela)². Urte berean, ikuskizun publikoetako artisten lan-harremanak arautzeko arau-esparru bat sartu zen indarrean³.

Hala ere, ezarritako arauketa ez da nahikoa izan artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako lan-baldintza duinak eta berdintasunezkoak bermatzeko. Denboraren iragateak eta sektorearen bilakaerak egoera larriagotu dute, araudiaren zati nabarmen bat jada ez delako egokia sektorearen errealitaterako.

Urte askoz, sektoreko eragile jakin batzuen mobilizazioak eta eztabaidaren nazioarteko sustapenak gogoeta piztu zuten, eta, azkenik, 2016an, Diputatuen Kongresuko Kultura Batzordean azpibatzerdi bat eratzeko izapideak hasi ziren, Artistaren eta Kultura Arloko Profesionalaren Estatutua prestatzeko modua aztertzeko berariazko xedearekin.

Sektoreko elkarte- eta langile-sareak sustatutako eta bultzatutako prozesu luze baten ondoren, 2018ko irailean txostena onartu egin zen, Diputatuen Kongresuaren osoko bilkuran; bertan, 75 gomendio jasotzen dira⁴. Horrek legegintzako ibilbide-orri bat eratu zuen atzemandako arazoaren hedaturari heltzeko.

Oraingoz, lan horren ondorioz sorkuntza artistikoari eta zinematografiari buruzko premiazko neurriei buruzko 2019ko urtarrilaren **25eko 26/2018 LEDa** onartu da⁵. Bertan, ikusiko denez, egindako gomendioetako batzuk jasotzen dira, baina azaroa ez da guztiz (zabal eta sakon) konpontzen.

1_ 635/1970 Dekretua, martxoaren 12koa, Gizarte Segurantzako Artisten Araubide Berezia ezartzen duena (xedapen indargabetua).

2_ 2621/1986 EDa, abenduaren 24koa, trenbideetako langileen, futbolariaren, merkataritzako ordezkarien, toreatzaileen eta artisten Gizarte Segurantzako araubide bereziak Araubide Orokorrean sartzen dituen eta Liburu Idazleen Araubidea Norbere Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezian sartzen duena.

3_ 1435/1985 EDa, abuztuaren 1ekoa, ikuskizun publikoetako artisten lan-harreman berezia arautzen duena.

4_ Txosten osorako esteka, Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean: http://www.congreso.es/backoffice_doc/prensa/notas_prensa/61825_1536230939806.pdf

5_ LEDerako esteka, BOEn: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-17990



3.2 Egungo arauketa: testuinguru orokorra

Alderdi formalean, artearen eta kulturaren eremuan lan egiten duten pertsonak ez daude berariazko esparruetan sarturik. **Langile Autonomoen Araubide Berezian** (LAABean) daude, norbere kontura lan egiten badute, eta **Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean** (GSAOan), besteren kontura lan egiten badute. Dena den, esparru orokor horien barruan, artistek eta kultura-arloko profesionalak berariazotasun batzuk daukate, eta, beraz, araubide berezirik ez dagoen arren, esan liteke praktikan badaudela **azpiaraubideak**.

Langilearen Estatutuak berak aipamen bereziak jasotzen ditu ikuskizun publikoetako artistei dagokionez; horiek **1435/1985 EDan** zabaltzen dira eta, hain zuzen, berariazotasunen arauketa justifikatzeko abiapuntua dira. Araudi hori lan-harremanen testuinguruan kokatzen da eta sektore artistiko guztietan ekitatez arautu daitezkeen alderdiak soilik jorratzen ditu; berariazotasunak geroago negoziazio kolektiboaren bidez garatzeko uzten ditu. Ildo horretan, sektore eta lurralde batzuetan (Estatuko eremuetakoak izan zein ez), bakoitzaren berariazotasunak arautzen dituzten **hitzarmen kolektiboak** daude (ikus-entzunezkoetan, arte grafikoetan, ikuskizunetan, argazkilaritzan...).

Norbere konturako araubidean dauden pertsonen dagokionez, artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako esparru oso eta berezirik ez dagoen arren, badaude zergen arloko xedapen batzuk, zenbait eremu berariazko arauekin definitzen dituztenak. Araubide bereziak, esate baterako, liburu-idazleena, araubide orokorrean sartu ondoren gailentzen dira batez ere.

Duela gutxi, **26/2018 LEDak** Artistaren Estatutu Berriaren proposamenean egindako gomendioetako bat abian jarri zuen, artisten eta kultura-arloko profesionalen eremurako berariazko arauen esparru horretan sakonduz. Zehatz-mehatz, egile-eskubideen tributazioari, erretiro-pentsioaren eta sorkuntza artistikoaren bateragarritasunari eta zerbitzu artistiko batzuen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZaren) murrizketei lotutako alderdi batzuk proiektatu edo abian jarri ziren eta ikuskizun publikoetako artistek jarduerarik gabeko aldietan kotizatzeari eta eskura ditzaketen prestazioei buruzko neurri bereziak zehaztu ziren (ikus-entzunezko eta zuzeneko ekoizpenetan inbertsioak erakartzeko kenkariak ere eskaintzen ditu).

BEZari dagokionez, aipatu behar da 2012. urtean BEZ orokorra % 18tik % 21era igo zela, eta BEZ murriztua, aldiz, % 8tik % 10era. Prozesu horretan, kultura-ondasunak tasa murriztutik orokorrera pasatu ziren; adibidez, arte eszenikoetako ikuskizunetarako txartelak % 8tik % 21era igaro ziren. Beste jarduera batzuek, ordea, hala nola museo edo galerietarako txartelak, tasa murriztuari eutsi zioten (baina zenbateko berriarekin, hots, % 10). Duela gutxi, zinemarako eta arte eszenikoetako eta musikako ikuskizunetarako txartelen BEZa % 21etik % 10era jaitsi zen, eta aktoreen, artisten, zuzendarien eta teknikarien zerbitzuen BEZa ere bai.

Azkenik, azpimarratu behar da azken urteetan zerga-neurriak ezarri direla kulturaren sustapenean **partaidetza pribatua**, indibiduala zein enpresena, pizteko. Dagoen legeaz gain (49/2002 Legea, irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa), Gobernuak 2014an Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZaren) eta Sozietateen gaineko Zergaren (SZren) bidezko kenkariak eskaintzen dituzten neurriak onartu zituen (eta 2016rako guztiz ezarri zituen). Autonomia-erkidegoek, adibidez, Nafarroako Foru Komunitateak, kultura-mezenasgoari buruzko lege propioak onetsi dituzte.

4 Etorkizunerako proposamena: “Artistaren Estatutu Berria”

Aurrerapen berrienak Diputatuen Kongresuak onartutako txosten batetik datoz. “Artistaren Estatutu Berria” deritzo, nahiz eta legegintzako ibilbide-orri gisa erabiliko den gomendio-txostena izan.

Atal honetan, txostenaren edukia aurkezten da eta haren proposamenetarako informaziozko hurbilketa sintetikoa ematen da.

Azpibatzerdearen txostena osatzen duten atalei jarraituz, edukia hauen artean bereiziz aurkezten da:

- Zerga-sistema
- Lan-babesa eta Gizarte Segurantza
- Diru-sarreraren bateragarritasuna

4.1 Zerga-sistema

Zerga-sistemaren arloan 6 azpiatal identifikatzen dira:

Etekin irregularren tributazioa	Gastuen kenkaria	Errendimendu eskaseko PFEZaren atxikipena	Jabetza intelektualeko eskubideen konturako aurrerakina	BEZaren eraldaketa
---	-------------------------	---	--	---------------------------

Aurretiaz gomendatzen da neurriak kultura-lanetik datozen diru-sarrerei soilik aplikatzea. Hori garrantzitsua da egiaztatu delako kultura-lanetik diru-sarrerak jasotzen dituzten pertsonen beste jarduera batzuetatik diru-sarrera osagarriak ere jasotzen dituztela. Horrek bai artisten eta kultura-arloko profesionalen lanaren ezaugarriak bai izaten diren prekaritate-egoerak islatzen ditu, azken horien ondorioz kultura-arlokoak ez diren lanak egin behar dituztelako.

Lehenik eta behin, zerga-tributazioa **etekinen irregulartasunera** egokitzeari buruzko 3 proposamen nabarmentzen dira:

1. Batezbesteko mugikorretan oinarritutako batezbestekoa: etekin garbiaren kargapeko zenbatekoa (lanarena zein ekonomia-jarduerarena) homogeneizatzean datza, aurreko 2, 3 edo 4 urteetako etekin garbiaren batezbestekoa kontuan hartuta. Ez da ekitaldiko zenbatekoa erabiltzen, baizik eta ekitaldiko zenbatekoaren eta aurreko ekitaldietakoaren batezbestekoa.
2. Zerga-tasaren batezbestekoa: kasu honetan, zerga-tasa kalkulatzeko, arte-jardueraren etekin garbia 2 urteri dagokiela ulertuko litzateke.
3. % 30eko salbuespena errenta irregulartarako: tributatu beharreko kopurua murriztu, eta zenbatekoaren % 70 izango litzateke. Arau hau etekin irregularraren kasuetan jada xedatuta dago, baina ez du barne hartzen ez sortzaileen eta jabetza intelektualaren kasurik ez kultura-lanaren ondoriozko diru-sarreraren errealitaterako egokia den baldintza aplikagarririk. 35/2006 Legea, arau hori erregulatzen duena, aldatu beharko litzateke.

Gastuak kentzeko aukerari dagokionez, txostenak bi kasu bereizten ditu, lan-eremuan edo ekonomia-jardueraren eremuan gertatzen dena aintzat harturik:

– Lan-etekinei dagokionez:

- Prestakuntzari, tresnei, erremintei, zerbitzu-sariei eta komisioei lotutako gastuak kontuan hartzea proposatzen da.
- Prestakuntza-gastuek zentro pribatuetan emandako ikastaroak kentzeko aukera barne hartzea proposatzen da, zentro publikoetan ez badago eskaintza baliokide eskuragarririk. Gaur egun, gastuak ordainduz trebatzea erabakitzen duten enplegatuek ezin dituzte gastuok kendu; beraz, urtero PFEZaren likidazioaren bidez gehienez 500 € kendu ahal izatea proposatzen da (sindikatuatarako eta profesionalen elkargoatarako kuoten gastuatarako ezarrita dagoen mugaren antzekoa).
- Tresnei eta erremintei lotutako gastua (horiek eskuratzeko, errentatzeko, konpontzeko edo mantentzeko egindakoa) bada kengarria ekonomia-jardueraren etekinen kasuan; beraz, PFEZaren likidazioaren bidez lan-etekinak

jasotzen dituzten pertsonentzat ere kengarria izatea proposatzen da, 500 €-ko mugarekin.

- Zerbitzu-sarien eta komisioen (ordezkariak, agenteak, sustatzaileak, galeria-jabeak edo bitartekariak jasotakoak) ondoriozko gastuak, berriro ere, kengarriak dira ekonomia-jardueraren kasuan, baina ez lan-etekinei dagokienez. Hala ere, ohikoa da lan-etekinen jasotzaileak agenteei edo ordezkariak komisioak ordaintzea.

– Ekonomia-jardueraren etekinei dagokionez, honako hauei buruzko iruzkinak jasotzen dira: garraio-ibilgailuen erabilera; harreman publikoak; bidaiarien garraio publiko kolektiboa; hornidurak, lantokia ohiko etxebizitza denean; eta justifikatzen zailak direnak.

- Proposamenen xedea Estatuko PFEZari buruzko araudian aldaketak sartzea da, zergadun guztiei aplikatu beharrekoak; izan ere, oso zerga-tratamendu heterogeneoa dago, arrazoizko justifikaziorik gabe (eta horrek, berriz, zergadunen eta Administrazioaren arteko auzi ugari sorrarazten ditu).
- Ibilgailuen erabilerrari lotutako gastuei dagokionez, proposatzen da edozein ibilgailuri (turismoari, atoei, ziklomotorrei eta motozikletei) lotutako gastu kengarriak onartzea, BEZari buruzko araudian jasotako baldintza beretan (lotura-ustea eta % 50eko kenkaria).
- Zenbateko berbera (gastuaren % 50 kengarria izatea) proposatzen da harreman publikoetako gastuatarako (sustapenerako, harreman publikoetarako, obren antzezpenerako...; sukaldaritzari, ostalaritzari, bidaiari eta joan-etorriari lotutakoetarako). Gainera, asteburuetara hedatzeko berariazotasuna proposatzen da. Kontzeptu horien multzorako gehieneko muga zergaldiko diru-sarreraren bolumenaren % 5 izango litzateke. Berariazotasun hori PFEZari buruzko euskal foru-arauan xedatuta dago.
- Berriro ere garraioa dela-eta, proposatzen da bizilekutik lantokira joateko garraio publiko kolektiboan egindako gastuaren kenkaria onartzea, lan-etekinen jasotzaileentzako salbuespenerako antzeko baldintzetan.
- Gainera, bizilekua eta lantokia leku berbera denean, egun dagoen araudia zabaltzea proposatzen da, mugatua delako (ehuneko kengarriak oso baxuak dira). Halaber, berokuntza-gastuaren aipamena gehitzea proposatzen da, urari, gasari, elektrizitateari, telefoniarri eta Interneti lotutako gastuez gain.

- Azkenik, justifikatzen zailak diren gastuei dagokienez, proposatzen da modalitate erraztuan ehuneko % 5etik % 10era igotzea eta muga 2.000 €-tik 5.000 €-ra igotzea. % 10 hori badago PFEZari buruzko euskal foru-arauan jasota, ezarritako mugarik gabe.

Zenbateko eskaseko etekinak daudela kontuan hartuta, zera proposatzen da:

1. LGSa baino baxuagoak diren etekinatarako PFEZean konturako atxikipeneko tasa murriztuak (adibidez, % 5) aplikatzea, baita jabetza intelektualeko eskubideen konturako aurrerakinak ere.
2. Ikuskizun publikoetako artistei buruzko legeriaren esparruan araututako kontratuei, urtebete baino gutxiago irauten dutenei, % 2ko atxikipen-tasa murriztua aplikatzea.

Jabetza intelektualeko eskubideen konturako aurrerakinak identifikatzeari dagokionez, PFEZa aitortzeko 190 eta 193 erduetan, zeinek jabetza intelektualeko eskubideei eragiten baitiete, berariazko gako edo azpigako bat gaineratzea proposatzen da.

Azkenik, **BEZaren** eraldaketari eta murrizketari dagokienez (sektoreak azken urteetan egin dituen errebindikazio nagusietako bat baita), honako hau proposatzen da:

- Arte-jardueraren balio-kate osoak % 10eko tasa murriztuan tributatzea berreskuratzea.
- BEZa ordaintzeko kutxa-irizpidea artistentzat eta sortzaileentzat zabaltzea, beste sektore batzuetan jada egiten ari den bezala.

26/2018 LEDak BEZa % 21etik % 10eraino murrizten du pertsona fisikoak diren interpreteek, artistek, zuzendariek eta teknikariek emandako zerbitzuatarako (beraz, ez da aplikatzen merkataritza-sozietate baten bidez jarduten badute), baita aretoetan erakuts daitezkeen filmen produktoreei ere; horrela, BEZa ordaindu behar zuten egoera batzuk zuzentzen dira. Horri dagokionez, zenbait kultura-sektore alde batera uzten dira, adibidez, ikusmen-artearena edo liburuarena osorik hartuta, baita zuzeneko obrak edo obra grabatuak diren erabakitzeari buruzko zehaztapen batzuk ere.

4.2 Lan-babesa eta Gizarte Segurantzza

Lan-babesari eta Gizarte Segurantzari dagokienez, guztira 9 azpiataletan identifikatzen dira proposamenak:

Elkarrizketa eta ordezgarritasun sindikala	Lan autonomoa	EJZren funtzionamendua	1435/1985 EDaren hobekuntza (ikuskizun publikoetako artistak)	Prestazioak, atxikipenak eta kotizazioak
Lanbide-trantsizioak	Lan-osasuna	Sentsibilizazio-kanpaina	Lanbide kulturalen aitorpena	

Proposamen horietako batzuk Norbere Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezia (LAABa) erreformatzeari buruzko azterketarako azpiatzordeak geroago egin beharko duen lana aipatuz egiten dira; izan ere, langile horiek sektorearen oso zati garrantzitsua dira.

Sektorearen barruko **elkarrizketa** dela-eta, sektoreko eragileekin hitz egiten hastea proposatzen da, sindikatu-ordezkaritzako sistema eta ordezkaritza sindikalak hautatzeko eta ordezkaritza sindikal hautatuak izateko betekizunak zabaltzeko, sektoreko lan-errealitate zehatzarekin bat etorritik.



Lan horiek norbere konturako langileen alderdian ere hasi beharra dagoela aipatzen da. Gainera, lan-ildo hau ezartzen da: behar diren neurriak eta arau-aldaketak onartzea artista autonomoen elkarrekin eta sindikatuek, informazioa emateko, zerbitzu-sarien zerrendak eta merkatuko batez besteko prezioei buruzko informazio ez-loteslea argitaratu ahal izan ditzaten eta haien lanaren hartzaila diren enpresaburuen elkarrekin bai ordainsari-kontuak bai interes profesionaleko beste gai batzuk negoziatu ahal izan ditzaten.

Azkenik, modu zehatzagoan, gomendatzen da indarreko legeria aldatzea profesionalen elkarrekin legitimazio prozesala emateko helburuarekin, abusuak eta iruzurrak daudenean elkarrekin izenean jardun ahal izan dezaten, kontsumitzaileen elkarrekin egiten duten antzera. Aldaketa horrek Prozedura Kriminalaren Legearen 11. artikuluari eragiten dio.

Lan autonomoari dagokionez, alde batetik, sektorean dauden norbere konturako langileak egokitzeko neurriak nabarmentzen dira eta, bestetik, ezkutuko lan-harremani edo autonomo faltsuei aurre egitekoak. Gomendatzen da Lan Autonomoaren Estatutuan (LAELA, 20/2007 Legea) atal berezi bat ezartzea (“IV. kapituluak: kultura-arloko profesionalen lanbide-arabide berezia”), Gizarte Segurantzaren Legeari gehitzea eta 2621/1986 EDan, zeinaren bidez liburu-idazlearen figura bakarrik erregularizatu baitzen autonomo gisa, kasu eta hobekuntza berriak sartzea. Sistema malgutzeko eta jarraitutasunik ezera egokitzeko, sisteman geratzearen eta etorkizuneko prestazioak estaltzearen alde eginez, gehikuntza horrek neurri hauei eragitea proposatzen da:

- Jarduketa- edo emate-egunen arabera hainbanatutako Gizarte Segurantzarako ordainketa ezartzea, eskubideen sorketa errazteko helburuarekin, dauden prestazioen estaldura eta norbere kontura lan egiten duten pertsonen horietara duten sarbidea hobetzeko asmoz.
- Autonomoen arabidearen bidez Gizarte Segurantzara egiten den kontribuzioa diru-sarrerekin proportzionala bihurtzea.
- LGSa baino baxuagoak diren diru-sarrerarako doako kuota aplikatzea eta LGSaren % 50 gainditzen ez duten urteko etekin gordinak dauzkaten sektoreko pertsonak kotizatzenetik salbuestea.
- Gizarte Segurantzarekin hitzarmenak sinatuz, LAELaren bigarren xedapen gehigarrian jasotako figura garatzea, modu autonomoan arte-jardueretan lan egiten duten pertsonen kotizazioak murriztea xedatzen baitu.

- LAABean sartzeko betekizunak argitzea eta autonomo faltsuak detektatu eta kanpoan uzten dituzten betekizunak ezartzea sisteman.

- LAABean lan egindako egun bakoitzeko alta hartzea erraztea.
- Kotizazio partziala (aurreikusita dago, baina legez garatu gabe) ikuskizun publikoetako artistentzat.
- LAELaren bigarren xedapen gehigarria aplikatzea (Administrazioak Gizarte Segurantzarekin hitzarmenak sinatzeko aukera, autonomo moduan artisautzaren edo artearen sektorean lan egiten duten pertsonen kotizazioak murrizteko).

Ekonomia Jardueren gaineko Zergak (EJZk) enpresa-, lanbide- eta arte-jarduerak kargatzen ditu. Haren epigrafeak berrikustea proposatzen da, sektorearen eta sektoreko eragileen errealitateari egokitzeko. Horrek zera dakar:

- Egile-eskubideei lotutako egikaritze- eta ekoizpen-epigrafeak eguneratzea.
- Enpresa-jardueri buruzko atal bat, LAABez bestelako arabide batean dauden egileez osatutako kolektiboentzat lanbide-jardueri buruzko atalaren baliokidea izango dena, sortzea eta lehenengo horien eskubideak ondoriozko nortasun juridikoarekin (elkarrekin, baltzu mugatua, sozietate zibila, kooperatiba, ondasun-erkidegoa) parekatzea, bere EJSNarekin.
- EJZren 3. atalean, arte-jardueri buruzkoan, autonomo moduan alta indibiduala hartzeko aukera xedatzea, zerbitzu profesionalak emateko.
- 3. atalean jasotako arte-jarduera guztiak 2. atalean (lanbide-jarduerak) sartzea.
- Gaur egun 2. atalean dauden egileak eta interpreteak (idazleak, margolariak, eskultoreak, zeramikariak, artisauek, grabatzaileak, zaharberritzaileak eta antzeko artistak) 3. atalean sartzea.
- Besteren kontura lan egiten duten eta kasu berezietan jarduten dutenez EJZn noizean behin bakarrik alta hartu behar duten pertsonen kasuak ematea, adibidez, enpresaburu edo produktoreei (emanaldien eta dantzaren arloan); izan ere, horrelakoetan, haien figura antzerki- edo dantza-produkzioetik hurbilago dago aktore edo dantzarien figuratik baino.

1435/1985 EDa, ikuskizun publikoetako artisten lan-harreman berezia arautzen duena, kontuan hartuta, 6 aldaketa proposatzen dira lanaren errealitatera egokitzeko:

- Adingabeak: ikuskizun publikoetan gero eta adingabe gehiago daudenez, ED hori egokitu egin behar da, adingabeek besteren kontura bakarrik egin dezaketelako lan, bidezkoak diren baimen, kontrol eta betekizun guztiekin, araubide autonomoan sartzeko irizpideak betetzen ez dituztelako.
- Ikuskizun publikoaren definizioa: gomendatzen da lotutako lanbide-jarduerak, hala nola teknikari eta laguntzaileenak, txertatzea eta oraingo kotizazio-taldeetan sartzea, ikuskizunen enpresa produktorearen egitura finkoan egon ez arren.
- Finkapen-baliabide berriak: EDaren aplikazio-eremua finkapen-baliabide digital berriei dagokienez hedatu behar da, web-ingurunea eta emanaldiaren lekuaz haraindi hedatzeko edozein formula barne.
- Iraupen laburreko kontratuak edo “boloak”: zenbait kasuk, hala nola zuzeneko musikak, iraupen laburreko emanaldiak dituzte bereizgarri; hortaz, gomendatzen da altarekin parekatzeko formulei heldzea, lanaldia ahalik eta gehien kontuan hartuz, bukatzen den arte, joan-etorriak barne.
- Kateamendua eta kontratazio partziala: gomendatzen da EDaren bidez kontratazio partzialaren kateamendua eta egoera horren ondoriozko beste abusu batzuk mugatzea, kontratu mugagabeak, aldizkako finkoak edo egindako lanera egokitutako beste batzuk egitea sustatuz.
- Amaitzeagatik kalte-ordaina: gaur egun, kalte-ordain hau ez dago parekatuta Langilearen Estatutuan definitutako orokorrearekin (7 egun lan egindako urte bakoitzeko eta 12 egun lan egindako urte bakoitzeko, hurrenez hurren).

26/2018 LEDaren bidez, Gobernuak 1435/1985 EDa ordeztzeko araudi berria garatzeko konpromisoa hartu zuen.

Gainera, ikuskizun publikoetako besteren konturako artisten jarduerarik gabeko aldiei dagokienez, arautzen du artista horiek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean alta emanda jarraitu ahaliko dutela aldi horietan

Horretarako, urtarilaren lehen hamabostaldian borondatezko alta jakinarazi beharko dute, eta aurreko urtean zerbitzuak benetan ematen gutxienez 20 egunez altan egon direla egiaztatuz; egun horietan, gainera, lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza baino gehiago jasota eduki behar dute hileko zenbaketan. Urteko berritzeak ere berariazkoa izan beharko du, eta ez Gizarte Segurantzak automatikoki egina, berak kasuak egiaztatuta.

Lan egiten ari ez direnean kotizatzen jarraitzeko, Araubide Orokorreko kotizazio-taldeen eskalako 7. taldeari dagokion hileroko zenbatekoa ordaindu beharko dute.

Babes-ekintzak zio hauengatik prestazioak hartuko ditu barne egoera horietan: amatasuna, aitasuna, ezintasun iraunkorra, kontingentzia arrunten ondoriozko heriotza eta biziraupena eta erretiroa. Era berean, langile haurdunen egoera hartuko du barne, baita edoskitze naturaleko aldiak daudenean ere, haurrak 9 hilabete bete arte, haien lan-jarduera gauzatzen jarraitu ezin badute; horrelakoetan, ezarritako kotizazio-oinarriaren % 100 estaliko da.

Hona hemen lan-babeserako eta gizarte-babeserako oinarritzko mekanismo bat: **gizarte-prestazioen** bidez lanaren eremuan atxikipenen eta kotizazioen bitartez garatzen dena. Horrela, prestazioak, atxikipenak eta kotizazioak direla-eta ere, garrantzi handiko proposamenak egiten dira:

— Erretiroari dagokionez:

- Erretiroaren aurreko 21 urteko aldia 26 urtetara arte zabaltzea, arreta berezia jarri egiturazko higadura fisikoa dakarten lanbideak dauzkaten artistengan, espezialitatean gutxienez 10 urte lan egin badute (gaur egun 8 urte dira), lanbidean geratzeko eta baldintzak hautatzeko justifikazio gisa..
 - Kalkulu-aldia zabaltzean kotizazio-urte txarrenak alboratzea baimentzea, karrera artistikoak nola garatu ohi diren kontuan hartuta.
- Era berean, erretiro-pentsioa jasotzea eta LAABean sartuta egotea bateragarri egitea (gai hori hurrengo atalean, diru-sarreraren bateragarritasunei buruzkoan, zabaltzen da).

— Gizarte-estaldurari dagokionez:

- Egungo gutxieneko kotizazioaren araubideak zabaltzea, prestazio-, sorospen- eta estaldura-sistema mailakatu baten bidez, aldizkakotasun-egoerekin errazago bat etorrarazteko asmoz.
- Prestazioak, batez ere langabeziakoa, kobratzeko izapideak erraztea. Horrek bai izapidea bera (prozesua ahalik eta gehien informatizatzea) bai hautagarritasuna (aldizkakotasunarekin bat etorraraztea edo bateragarri egitea) hartzen ditu barne.

- Profesionalizazio edo solidaritaterako mutualitate-funtsen sorkuntza sustatzea.
- Gizarte-estaldurako mekanismoak finantzatzeko moduak aztertzea eta hedatzea:
 - > Konturako kotizazioak: enpresa produktoreek dituzten kotizazio-oinarrien tartea artistak jasotako ordainsarien arabera murriztea.
 - > Egile-eskubideak kudeatzeko sozietateen bidezko osagarritasuna: egile-eskubideak lan-etekintzat jotzen direnez, zentzuzkoa litzateke artista babesten laguntzea, Gizarte Segurantzaren konturako sarrerak eginez, alta hartu behar izan gabe.
 - > Kotizazio horiek kontuan izanik, ekitaldiaren amaiera, artistak egoera erregularizatu luke, oinarrien eta ordainsarien arteko aldeak egonez gero horiek erreklamatu. Horrela, kotizazioa ordainsarien bidez lortzea ala jada kotizatutako oinarriak erabiltzea hautatu ahalko luke.
 - > Ekitaldi honetan, aldizkakotasunaren eragina murrizteko, gehiegizko kotizazioa hurrengo ekitaldietara lekualdatzeko aukera eskaini beharko litzateke.

— Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra erreformatzea, alta parekatu eta ez-errealen dauden langileei haurdunaldiko arriskuagatik prestazioa aitortzeko. Legez ezin bada egin, Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi bat sinatzea. Alta-betekizunaren interpretazio malguaren alde egitea beti, erditzea baja hartu eta bihamunean gertatzen bada prestazioaren ukapena saihesteko.

Lanbide-trantsizioko prozesuek alderdi tekniko eta fisikoan gogorak diren arte-lanbideei eragiten diete bereziki (adibidez, dantzari edo zirkuari). Honako hau proposatzen da:

- Lanbide-trantsizioa babesteko programak ezartzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko sail arteko erakunde edo batzorde bat sortzea.
- Kolektibo horien ezaugarriak (adina, hezkuntza, enplegarritasuna...) kontuan hartzen dituzten berariazko programak diseinatzea, laguntza psikologikoa, lan-aholkularitza eta prestakuntza-eskaintza barne hartzen dituztenak.
- Haien enplegarritasuna hobetzeko, haien lanbide-profilak Lanbide Gaikuntzen Katalogo Nazionalan sartzea eta lanbide-gaitasunak egiaztatzeko prozedura ezartzea.

Sektorean hein handi batean arautu gabe eta arretarik gabe dagoen alderdi batek **lan-osasunarekin** dauka zerikusia; batez ere arte eszenikoei eragiten die. Sektoreak alderdi horretan dituen beharrak ere zehatzak dira, ohikoez bestelakoak. Hori dela-eta, gomendioen xedea bai egoera aitortzea bai horren ondorioz jardutea da, prebentzio-kultura bat eraikitzearen alde egiteko:

- Osasun-arloko profesionalen eta artisten eta interpreteak ordezkatzeko dituzten elkarteek osatutako kide anitzeko organo bat sortzea, gaixotasunen ebaluazioan eta aitortzean aurrera egiteko asmoz.
- Sektoreko laneko gaixotasunak aitortzea, 1299/2006 EDaren I. eranskinean sartuz (ED horren bidez, Gizarte Segurantzako sistemako laneko gaixotasunen taula onartzen da), eta sektoreko estaldura hobetzea.
- Osasunaren jarraipena egiteko berariazko sistemak ezartzea, prebentzioa hobetzeko.

Aurreko ataletan aipatu den arren, duela gutxi sortu edo finkatu diren **kultura-arloko lanbideen aitortzean** aurrera egin beharra berariaz gailentzen da; horretarako, Administrazioaren katalogo esanguratsu guztietan sartu beharko lirateke, lan-babesa eta Gizarte Segurantzaren kudeatzeko.

Lan-ildoen hedadura eta sakontasuna aintzat hartuta, talde hauek xede dituzten **sektoreko kanpainak** egitea proposatzen da:

- Herritarrak eta administrazioari langileak, bai norbere konturako lanean bai besteren konturakoan sektorearen berariazotasunak ikusgai egiteko eta neurrien garapena errazteko helburuarekin.
- Sektorea bera (enpresak, bitartekariak eta profesionalak), prozedurak eta artisten eta kultura-arloko profesionalen eskubideak eta betebeharrak ezagutarazteko helburuarekin.

4.3 Diru-sarrerren bateragarritasuna

Azpirarratu behar da ezen, kultura-lanaren defentsa gisa, neurri hau lan-babesari eta Gizarte Segurantzari buruzko atalean egon litekeela, prestazioei, atxikipenei eta kotizazioei dagokienez.

Jabetza intelektualeko eskubideengatik edo sorkuntza-jardueraren ondoriozko beste eskubide batzuegatik (adibidez, prestakuntza-jardueren ondoriozko diru-sarrerak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeetako kargu exekutiboetan parte hartzeagatik) dietak errentak jasotzea eta prestazio publikoetatik datozen diru-sarrerak (kotizaziopeko pentsioak eta kotizazio gabekoak, bai Gizarte Segurantzakoak bai mota pasibokoak, gutxienekoengatik osagarriei, langabeziagatik sorospenei, gutxieneko errentei eta abarri dagokienez) jasotzea bateragarri egitea xede duten proposamenak dira.

Lehenik eta behin, txostenak aldaketak oro har egitea gomendatzen du, aldatu beharreko prestazio bakoitzari buruzko araudiaren berezitasunetan sartu gabe.

Bateragarritasun horien eremu zehatzean, 5 proposamen zerrendatzen dira guztira:

<p>Erretiroa hartu zein hartu ez dutenen bateragarritasunak</p>	<p>Erretiroa hartu dutenen bateragarritasunak</p>	<p>Erregularizazioak <i>ex post</i></p>	<p>Egile-eskubideen errenten sailkapena</p>	<p>Elkarrizketa eta prestakuntza-kanpainak</p>
--	--	---	--	---

Lehenik eta behin, **erretiroa hartu zein hartu ez dutenen bateragarritasunak** aztertzen dira. Horretarako, zera proposatzen da:

- Honako hauek diru-sarrerren zenbaketatik eta bateraezintasun-arauen aplikaziotik kanpo uztea:
 - Arte- eta kultura-lanaren ondoriozko etekinak (ekonomia-jarduera zein lan-jarduera izan).
 - Jabetza intelektualaren etekinak.

- Artisten araubide bereziaren barruan geratzen diren lan-etekinak dauzkaten artistak kanpo utzita, irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarteetako (fundazioetako, eskubideak kudeatzeko erakundeetako, hezkuntza-instituzioetako edo akademietako) organoen bileretara joateagatik dietak, organo horietan kargu exekutiborik ez badaukate.

Zehatz-mehatz, **erretiro hartu dutenen kasuetarako:**

- Erretiroagatik, ezgaitasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik edozein pentsio guztiz bateragarria izatea edozein jarduera egitearekin edo diru-sarrerak jasotzearekin (nahiz eta, teoriarik, horretarako Gizarte Segurantzaren alta emanda egon eta kotizatu behar izan). Berariaz eskatuta emandako baldintza litzateke eta erretiroa hartu osteko jardueraren ekitaldiko urteko diru-sarrerren % 8ko kontribuzio solidarioa ekarriko luke. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 153. artikuluan ezarritakoaren antzeko neurria da.

26/2018 EDan, gobernuak konpromisoa hartzen du jabetza intelektualeko eskubideengatik diru-sarrerak jasotzen dituzten arte-sortzaileen erretiro-pentsioaren bateragarritasuna arautzen duen arau bat onesteko.

Bateragarritasun-arau berrietan jasota ez dauden kasuetarako, gomendatzen da **erregularizazioa aukerako ex post sistema malgu batekin** osatzea. Sistema horrek pentsio publiko eta gutxienekoengatik osagarri guztietarako aplikagarria izan behar du, eta muga jakin bat ezarri diru-sarrerren zenbateko bat gainditzen denean:

- Egoera jakinarazitakoan, pentsioa ohiko moduan jasotzen jarraituko litzateke.
- Hurrengo urtean, jarduera-datak eta lanean jarraitzeagatik jasotako diru-sarrerren zenbatekoa jakinarazi beharko lirateke. Horrek aurreko 3 urteei dagokien guztia hartuko luke barne edo, bidezkoa bada, aldi txikiago bati dagokiona, egoeraren iraupenaren arabera.
- 3 urte horietako zenbatekoekin eta datekin, batezbesteko bat kalkulatu litzateke; horrela, irregularitasunaren eta eskuratutako diru-sarreretan egon litezkeen gailurren ondorioak leundu lirateke.



- Batezbestekoak ezarritako mugak gaintzen baditu, Gizarte Segurantzak egoera erregularizatuko du; kasu horretan, ukitutako pertsonak bidezkoak diren zenbatekoak itzuli beharko ditu.
- Muga, kotizaziopeko pentsio bat jasotzen duten pertsonentzat, lanbide arteko gutxieneko soldata gaintzea izango litzateke, eta kotizazio gabeko pentsio bat jasotzen duten pertsonentzat, aldiz, pentsioaren zenbatekoaren % 35.

Azkenik, txostenak adierazten du **egile-eskubideengatik jasotako errentak** eta antzekoak jabetza intelektualaren ondoriozko etekintzat jo behar direla. Horrek pentsioen ondoriozko diru-sarrerak jasotzeak dakarren arazoa konponduko luke. Ildo horretan, errenta orokorrean sartutako kategoria berri gisa definitzea gomendatzen da, berariazko lauki bat sortuz.

26/2018 LEDa, jabetza intelektualetik datozen kapital higigarriaren etekinei dagokienez, atxikipen-tasa % 19tik % 15era murrizten die egileak ez diren zergadunei; hortaz, egileen atxikipen-tasarekin parekatzen ditu.

Azkenik, berriro ere aipatzen da neurriak tartean dauden eragile guztiekin eztabaidatu eta adostu behar direla (bai profesionalekin bai ogasuneko ikuskatzaileekin eta arloan eskumena duten beste funtzionario batekin). Halaber, neurrien ezarketa errazteko **prestakuntza-kanpainak** egin beharko dira.

26/2018 LEDa, hitz batean, gomendatutako neurri guztien artean aurrerapen txikia da. Sinbolikoki, eremuan lan egiteko asmoa erakusteko balioa dauka. Dena den, berak bakarrik ohiko arazoak daramatza lotuta, adibidez, artisten eta kultura-arloko profesionalen definizioaren estutasunak, egoera-aniztasunik eta arte-lanaren berariazkotasunik kontuan ez hartzeak eta lan autonomoaren pisuak baldintzatutako errealitatea izateak eragindakoak; izan ere, nahiz eta autonomoena ez izan beti langileak nahiago duen araubidea edo haren egoerarako egokiena dena, beste batzuetan bada egokiena, besterentasun- eta mendekotasun-harremanen konplexutasunak gorabehera.

5_ Sektorearen zerga- eta lan-arauketa nazioartean

Azken atal honetan, begirada global bat eskaintzen da, zenbait herrialdetako arau-esparruetako elementu esanguratsuenak nabarmentzen dituena. Horrela, Espainiako Estatuko Artistaren Estatutu Berrian dauden proposamenen edukiak Estatuko bertako arauketarekin ez ezik beste leku batzuetakoekin ere konpara daiteke. Era berean, horrela, artean eta kulturean lan egiten duten pertsonak babesteko gara daitezkeen neurriei buruzko ideiak ekar daitezke.

Arlo honetan, hasteko, garrantzitsua da azpimarratzea arte- eta kultura-lanaren babesaren sustapenaren aurrekari garrantzitsu bat dagoela: UNESCOk 1980. urtean emandako gomendioa, behar hori nabarmentzen baitzuen. Aipatutako azpibatzerdearen txostenean defendatzen den moduan, kontua ez da artistei eta kultura-arloko profesionali pribilegio bereziak eskaintzea, antzeko eskubideak baizik, haien lanaren bitxitasunak egiaztatuta.

Nazioarteko testuinguruaz hitz egiteko, interesgarria da lan-babesaren eta gizarte-segurantzaren alderdia eta zerga-sistemarena bereizten jarraitzea, horrela errazagoa izango delako erkatzea.

5.1_Zerga-sistema

Zerga-sistemaren arloan, 8 lege-eremu azpimarra daitezke. Lehen tokian eremu arruntena jarrita, honako hauek aipa daitezke:

BEZaren murrizketak, kenkariak eta salbuespenak	Dohaintzen tributazioa	Fundazioen tributazioa	Egile-eskubideen aldeko tributazioa
Gastuen kenkariak	Inbertsioa erakartzeko zerga-pizgarriak	Artisten mugigarritasuna eta tributazio bikoitza	Errenten batezbestekoa

Eremu horietako bakoitzean, legeriaren eskuzabaltasuna oso askotarikoa da. Nolanahi ere, guztien xedea da artearen eta kulturaren sektorea zerga-neurrien bidez indartzea, zeharkako babes-mekanismo gisa erabiltzen baitira.

BEZaren murrizketak eta salbuespenak dira kasu ezagunena. Adibidez, herrialde guztietan kulturari lotutako produktu edo ondasunetarako murrizketak edo salbuespenak daude, baina desberdintasun batekin: zenbait herrialdetan, murrizketen edo salbuespenen zerrendak kasu gehiago edo gutxiago hartzen ditu barne, eta herrialde batzuetan BEZ-tasa murriztuak beste batzuetan baino murriztuagoak dira. Azpimarratzekoak dira BEZaren salbuespenean literatura-sariak barne hartzen dituzten arauketak (adibidez, Danimarkakoa) edo ikuskizunetarako txartelak salbuesten dituztenak (esate baterako, Norvegiakoa). Beste kasu batzuetan, salbuespenik ez dagoen arren, BEZa alde aurretik ken daiteke, babes-neurri moduan. Gainera, gero eta ohikoagoak dira egile-eskubideetarako neurrirako tributazioaren alde egiten duten arauak.

Kanadan, hain zuzen ere, bai norbere konturako bai besteren konturako enplegatuek gastuak kentzeko sistema garrantzitsu bat gailentzen da, arte- eta kultura-jarduerari aurre egiteko modua errazteko asmoz.

Artearen eta kulturaren arloan inbertsioak edo dohaintzak egiteagatik kenkariak ere oso aukera hedatuak dira. Sektore horri dirua eskaintzea erakargarriagoa egitea da asmoa; horretarako erabili ohi diren fundazioek nola tributatu behar duten azaltzeko lege bereziak hartzen ditu barne horrek (hala ere, fundazioak ez dira onuradun bakarrak: forma berriek banakako dohaintzetarako abantailak ere eskaintzen dituzte, ez bakarrik konpainiek egindakoetarako). Eremu horretan Italiaren eta Frantziaren kasuak ere nabarmendu daitezke; hor, kenkari eskuzabalen bitartez, monumentu, leku arkeologiko, museo, artxibo, liburu-denda, antzoki edo fundazio lirikoetarako dohaintza sustatu da. Legeria hori eskuzabalagoa edo murriztagoa egin daiteke, edo eremu puntual batean kokatu, behar jakin batzuk betetzeko asmoz. Adibidez, Kanadan erakunde publikoek obra artistikoak dohaintzan ematea errazten da.

Antzera, ingurune askok atzerriko inbertsioa edo ekoizpena erakartzeko eskaintzen dituzten zerga-abantailak gailentzen dira, nahiz eta hori gehienbat ikus-entzunezkoetako sektorean gertatu. Ildo horretan, azpimarratzekoa da Belgikak antzeko neurri bat garatu nahi duela ekoizpen eszenikoan inbertsioa babesteko.

Artisten mugigarritasunaren arlo zehatzean, ez da harrizkeoa Belgikan, non muga arteko jarduera bizia dagoen, tributazio bikoitzerako berariazko legeria egotea. Helburua artisten mugigarritasuna erraztea da, horrela sektorearen dinamismoa eta etekinak areagotuko baitira.

Azkenik, artisten eta kultura-arloko profesionalen zerga-sistemari dagokionez, nabarmentzekoa da Danimarkan errenten batezbestekoa egiteko mekanismoa dagoela, lan honen hasieran azaldutako aldizkakotasunari lotutako arazoak saihesteko.

5.2 Lan-babesa eta Gizarte Segurantzza



Lan-babesaren eta Gizarte Segurantzaren arloan, ezinbestekoa da Frantziako ikuskizunen aldizkakotasunaren Gizarte Segurantzako araubidea aipatzea, nahiz eta bere kostuengatik eta estaldura zabalagatik salbuespenezkoa izan (orain dela gutxi, horrek sektorean gatazkak sortu ditu eta ondorioz aldaketak egin dira).

Frantziako aldizkakotasun-araubidea ez da diru-sarrereren ezegonkortasunak artistengan eta ikuskizunetako teknikariengan dituen ondorioak arintzen saiatzen ari den bakarra, baina historiagatik eta eskuzabaltasunagatik araubide bitxiarena da.

Arazoari heltzeko inspirazio desberdineko bideak daude, adibidez, gizarte-prestazioen kobrantza erraztea (bateragarritasunak, eskuzabaltasuna, betebeharrak, izapideak...). Horien bidez, lanagatik errentarik jaso ezin denean segurtasuna eman nahi da, edo lan-kontratazioa erraztu, lanaren errenten eskurapena eta kotizazioa sustatzeko neurri gisa, ezkutuko ekonomia saihesteko eta lan-harremana erakargarriagoa egiteko asmoz, gizarte-babeserako aukera gehiago eskaintzen baititu.



Bateragarritasunen artean, langabeziagatiko prestazioarekikoa gailentzen da bereziki. Eskema askok, sektoreko langileentzako diru-sarrerak egonkortzeko formula diseinatzerakoan, onuradun izan daitezkeenek bete behar dituzten kategorია-, inguruabar- eta jokabide-baldintzak aldatzen dituzte; horrela, lan-merkatuan erraztasunez eta segurtasunez sartzea eta irtetea ahalbidetzen dute.

Prestazio horiek jasotzeko prozesuak erraztea ere bada bateragarritasuna errazteko modu bat. Belgikari dagokionez, bi gauza nabarmentzen dira: batetik, norberaren zein besteren konturako artistentzako langabeziagatiko onurak bereizketarik gabe aitortzen dira eta, bestetik, artistentzako eta ikuskizunetako teknikarientzako berariazko onura-sistema bat dago (ez baitira beti onura berberak).

Era berean, Belgikan burokrazia saihestea xede duen ordainketa-sistema bat erabiltzen da (*Régime des Petites Indemnités* izenekoa); behin-behinekotasun handiko kontratazio-kasuetarako da egokia, eta bertan diru-sarrerak ez dira tributatzen, gastuengatiko itzulketa gisa ordaintzen direlako. Halaber, aldi baterako laneko sistema bat dago, noizbehinkako enplegatzaileek administrazio-kargarik gabe kontratatzea errazten duena, aldi baterako agentzia moduko kontratazio finkorako bulegoen bidez (*Bureaux sociaux pour artistes* izenekoen bidez) eginez. Frantzian ere enplegu publikoko zerbitzu berezi bat dago ikuskizun publikoetako langileentzat, baita datu-base baten bidez langileak eta produktoreak harremanetan jartzeko ekimen bat ere (<https://www.pole-emploi.fr/spectacle/>).

Gizarte Segurantzaren eremuko beste ekimen interesgarri bat Alemanian dago; han, artista autonomoentzako gizarte-segurantzako funts bat dago (*Artists' Social Insurance Fund* edo KSK, alemanezko siglengatik), osasunari eta zahartasunari lotutako kasuak estaltzen dituena (lan-eremuan, artistak eta kultura-arloko profesionalak eskema orokorrean araututa daude). Funts horretan langileek berek ez ezik artista horien lana ustiatu ohi duten konpainiek ere hartzen dute parte, eta sortu zaizkien finantzaketa-erronkei aurre egiteko aldatzen joan da.

Beste kasu batzuetan, hala nola Kanadan, oso legeria garatua dago besteren konturako langileentzat, baina ez hain garatua norbere konturako eremuan (nahiz eta duela gutxi aurrerapenak egiten hasi diren). Horrela, nabarmendu behar da berariazko arauketa

garatzen duen Artistaren Estatutu bat dagoela. Bai maila federalean bai nazionalen dago; izan ere, lehen kasuan gobernu federalari lotutako artistak bakarrik biltzen dira (hobekuntzetako bat, adibidez, norbere konturako lanerako arauketen hedapena, artisten elkarteek mahai gainean jarri dutena).

Azkenik, eta kasu honetan ere Belgika azpimarra daiteke, hango baterako batzordeak direla-eta, funtsezkoa da sektorearekin negoziatzea eta aholkularitza eskaintzea. Eragile guztiak antolatzea babeserako garrantzitsua da, elkarriketa, ordezkarritasuna eta mobilizazioa ahalbidetzen dituelako eta, beraz, artistak eta kultura-arloko profesionalak ahaldunduz dituelako eta sektoreko lanak bereizgarri duen atomismoa hausten duelako.



6 **Sektoreaz haraindi: gogoeta orokorrerako esparrua**

Artistaren Estatutu Berriari buruzko eztabaida ongizate-estatuen eta lan-merkatuaren konfigurazioari buruzko eztabaiden barruan kokatzen da edo, orokorrago, gizarte-ongizateko araubideetan. Kontua esparru kontzeptual horren koordinatuetan, Europako testuinguruan eta hango ekimenetan kokatzea lagungarria da egoeraren oinarritzko elementuetako batzuk sakonago ulertzeko.

6.1 **Gizarte-babesa eginkizun**

Artisten eta kultura-arloko profesionalen egoera hobetzeko neurriak diseinatzean, ekintza bikoitza xedatu behar da beti, ahalik eta eraginkortasun handiena ziurtatzeko: batetik, lan-merkatuaren funtzionamendua birkonfiguratu behar da (lan-eremua) eta, bestetik, haren ondorioei egungo legeriaren barruan aurre egiteko modua (zerga-eremua).

Lan-merkatua errentak banatzeko lehen mailako mekanismoa da, eta zerga-sistema, aldiz, birbanatzeko bigarren mailako mekanismoa, hau da, zuzentzailea. Beraz, jarduteko eta lehenesteko eremua ondo ulertzearen, garrantzitsua da atzematea kasu batean ondorioei eragiten zaiela (zerga-sistema) eta bestean, aitzitik, kausei (lana).

Kausen eta ondorioen arteko bereizketa horretan bertan, begirada zabaldu daiteke, eta atzeman artistak eta kultura-arloko profesionalak ez direla lan-mota zehatz baten ondorioak pairatzen dituzten bakarrak (kausa desberdinengatik izan arren).

Artistei dagokienez, kausek lanaren berariazkotasunarekin izan dezakete zerikusia, eta ez dute zertan lan-merkatuaren industria osteko bilakaeraren ondoriozkoak izan: globalizazioa eta ekonomiaren desarauketa direla-eta sortutako presio ekonomikoen ondorioz, 1970eko hamarkadatik neoliberalismoak izan duen hedapenaren testuinguruan, lan-prekarietateak lan-merkatuan duen pisua pixkanaka handitu egin da. Adibidez, langile pobreen figura (*working poors*, ingelesezko jatorrizko adierazpenean) nabarmen hedatu da.



Lan-harremanetan sartuta dauden artisten eta kultura-arloko profesionalen lanbide-egoera zehazten duten inguruabar asko zeharkakoak dira beste sektore batzuekiko. Garrantzitsua da sektorearen egiturazko ezaugarri bat (alderdi anitzeko aldizkakotasuna) eta lan-prekarietateko egoerak (sektorean ere gertatzen baitira) ez nahastea. Hala ere, interesgarria da aitortzea paralelismo hori estrategikoki esanguratsua dela, aliatuak eta argudio partekatuak aurkitzeko bidea ematen duen dinamika zabalago baten barruan hausnartzeko. Kausak desberdinak izan arren, bi egoerok ondorio berberak islatzen dituzte (gizarte-babesik eza), lan- eta zerga-arauketa bera dela eta.

Horrela, lan-merkatu segmentatuaren teoria ikusita, arte- eta kultura-lanaren aldizkakotasuna eta lan-merkatuko bigarren segmentuko langileen prekarietatea batera koka daitezke testuinguruan. Bi kasutan, langileak behar ezegonkorrak dituen eta lan-baldintza txarragoak (prekarietate handiagoa, alegia, behin-behinekotasuna, errotaioa, lan partziala eta soldata baxuak) dauzkaten lanpostuak sortzen dituen ekoizpen-sistema batean daude. Antzekotasun horiek atzemanda, imajina daiteke egoera hori arintzeko xedea duten ekonomiaren zein lanaren arloko neurriak zehazki baliodunak edo esanguratsuak direla kulturaren sektorerako. Izan ere, paralelismo horiek, arazo zehatzak barne, lan autonomoari buruzko errebindikazioekin ere gertatzen dira. Zerga-sistema eta babes-ahalmena langile bakoitzaren errealitate profesionalera egokitu beharra zeharkakoa da; artistentzat eta kultura-arloko profesionalentzat ez ezik araubide guztirako ere interesgarria da. Berariazkotasun batzuk aintzat hartu behar diren arren, orokortasunekin ere gauza bera egin behar da.

Laburbilduz, aitortu behar da kontuaren oinarrian ongizate-estatuen gizarte-babesaren logika industrial dagoela: babesa okupazio-arau baten bidez garatzen da, zeinean besteren konturako harremana (lanekoa), egonkortasuna, sindikazioa eta iraupen mugagabea gailentzen diren. Horrelakorik egon ezean, xedatutako babes-mekanismoek huts egiten dute. Begi-bistakoa da arte- eta kultura-lanaren izaerak, hain zuzen ere, kontrako ezaugarriak dauzkala eta okupazio-arau horren neurri diseinatutako gizarte-babeserako edozein politika eragingabea izango dela (bai artistak eta kultura-arloko profesionalak babesteko, gure kasuan, bai lan-prekarietateko egoeran dauden langileak babesteko). Sektoreko langileen berariazko estatua aitortzen duen erreforma baten beharrak egitate hori du oinarri, eta, hori aintzat hartuta, ezinbestekoa izango da legeria errealitatera egokitzea.

Horri dagokionez, ikus daiteke, lan-merkatu segmentatuaren teoriarekiko paralelismoaren bidez ere ikas daitekeen moduan, egoera horren luzapen historikoak egituraketa instituzionalaren mailan eta, zehatz-mehatz, sektoreko eragileen antolaketan dauden gabeziekin duela zerikusia. Egituraketa-falta horrek harreman estua dauka artistek eta profesionalak egiten duten lan-motarekin, antolatzea eta sindikatzea zailtzen duelako eta, are gehiago, lan autonomo ugari egotea sustatzen duelako. Ildo horretan, erraza da ikustea gaur egungo lan- eta zerga-arauketa ekonomiaaren sektore tradizionalak (industrialeko) enpleguak, enpresa handiei lotuta daudenak eta sindikatu indartsuak dauzkatenak, errazago babesten dituela.

6.2 Nazioarteko konparaketa: gizarte-ongizateko araubideak

Nazioarteko testuinguru berrikustean, agerian jartzen da arte- eta kultura-lanaren egoera hein batean herrialde bakoitzeko ongizate-araubideekin bat datorrela, gizarte-babesari eta zerga-sistemari dagokienez. Horrek arazoari aurre egiteko moduen aniztasuna ulertzen laguntzen du.

Gizarte-ongizateko araubideen teoriak, jatorrian, hiru mota ideal (Europako iparraldekoa, kontinentala eta anglosaxoia) identifikatzen ditu:

Europako iparraldekoa	Kontinentala	Anglosaxoia
Sozialdemokrata	Korporatibista	Liberala
Eskubide unibertsalak, herritartasunari lotuak. Merkatu pribatuak pisu txikiagoa du oinarritzko beharren estalduran.	Gizarte-estatusari eta Gizarte Segurantzari egindako kontribuzioei lotutako eskubideak.	Erantzukizun indibidualak pisu handia du beharren estalduran.
Suedia, Danimarka, Norvegia edo Finlandia.	Alemania, Frantzia edo Austria, besteak beste.	Erresuma Batua, Kanada edo Ameriketako Estatu Batuak, besteak beste.

lido horretan, teoriak susta ditzakeen eztabaida teorikoak alde batera utzita, guri dagokigunez bereziki interesgarriak dira Espainiako kasurako bitarteko bide mediterranean bat egotea, inspirazio unibertsalistako eredu sozialdemokrataren eta orientazio kontributibistagoko eredu korporatibistaren artean (lanaren bidez egindako kontribuzioei eta Gizarte Segurantzari lotutako eskubideak).

Zein gogoeta egin daiteke errealitate hori aitortuta? Tradizio eta erakunde-konfigurazio desberdinek askotariko hurbilketak sorrarazten dituzte:

- Eredubatuetan, artisten lana esparru orokor batean kokatzen da eta berariazko arauketa gutxi daude. Horrelakoak Europako iparraldeko herrialdeek bereizgarri dituzten ongizate-araubide sozialdemokratetan ikusten dira, adibidez, **Danimarkan, Suedian** edo **Finlandian**. Horietan, lan-merkatuak (eta ekonomia oro har) oso araututa daude eta haien neurriak nabarmen unibertsalistak dira; hortaz, babes ona eta gizarte- eta lan-estaldura zabala eskaintzen dira, zeharkakoa arrisku-talde desberdinentzat.
- Aitzitik, oinarri unibertsalistakoak izan beharrean oinarri kontributibista duten araubideak dauzkaten herrialdeetan (bai **Frantzia**n edo **Alemanian** bai **Espanian** bertan, lan-babesari dagokionez), berariazko arauketek sistemak berariazkotasunera egokitzeko xedea dute. Unibertsalismoak gizarte-talde guztiei estaldura bera ematea dakar, haien berariazkotasunak gorabehera; kontributibismoak, ordea, estaldura egindako kontribuzioetara (kasu honetan, Gizarte Segurantzari egindakoetara) mugatzearekin du zerikusia. Horrek arazoak sortzen ditu, adibidez, Artistaren Estatutu bat edo beste edozein berariazko esparru bat sortu beharra.
- Zerga-sistemaren arloan, nabarmentzekoa da dohaintzek, mezenasgoak eta babesletzak herrialde anglosaxoietan (hala nola Britainia Handian edo Kanadan), zeinek ekonomiari dagokionez ongizate-araubide nabarmen liberala baitute, tradizionalki pisu handia izan dutela eta neurri horiek duela gutxi zabaldu direla, sektoreak izan dezakeen mendekotasun publikoa murrizteko asmoz, ongizate-estatuak austeritate-neurriekin birkalibratzeko testuinguruan.

Berariazkotasunen identifikazioaz haraindi, interesgarria da azpimarratzea arte- eta kultura-lanaren lege-esparruak herrialde bakoitzak politika publikoari (lanari, zergei

eta abarrei buruzkoei) dagokienez dituzten historia eta kultura instituzionalen menpe daudela. Gaur egun, kontrajarrita dauden bi lege-joera handi ikusten dira: alde batetik, gizarte-babesa lanarekin estuago lotzearen aldeko jarrera dago (*workfare* delakoa); bestetik, berriz, gizarte-babesa herritartasunarekin lotzearen aldekoa. Azken hori babeserako hurbilketa eskuzabalagoa eta unibertsalagoa da. Lanarekin lotura estua duten arauketekin erkatuta, lanaren prekaritatearen testuinguruan, edo egiturazko berariazkotasunaren testuinguruan arteari dagokionez, begi-bistakoa da begirada unibertsalista denentzat onuragarriagoa dela.

6.3 Europako elkarganatzea

Aurrekoa gorabehera, arte- eta kultura-lanak bere ezaugarri propioak dauzka, eta horrek berariazko esparrua definitzeko beharra justifikatzen du.

Adibidez, Europako Parlamentuaren Azterketa Zerbitzuak kultura- eta sorkuntza-sektoreko enpleguari buruz egindako txostenak frogatzen duenez, Europar Batasunak (EBk) honako hauek aitortzen ditu:

- Sektoreko langileek errentari eta gizarte-segurantzari dagokienez dituzten arazoak.
- Sektoreak EBrentzat daukan garrantzia, bai arlo ekonomikoan bai sozialean.
- Artistek sektoreko erdigune gisa duten posizioa.
- Estatu kideek artisten gizarte-estatutua definitzea eta artistak babestea sustatzeko beharra.
- Europa mailan politikak harmonizatzeke asmoa eta beharra.

Estatu kide bakoitzaren bilakaera historikoaren ondorioz desberdintasun instituzionalak dauden arren, arazoaren (arte- eta kultura-lanaren izaerari eta ondorioei buruzkoaren) zeharkakotasunak artistak aitorten horren bidez babesko adostasuna errazten du.



EBk kultura- eta sorkuntza-sektorea indartzeko duen nahian kokatzen da kontua. Sektore hori estrategikoa dela aitortzeak ikuspegi-aniztasuna dakar, eta artisten eta kultura-arloko profesionalen lanaren babes beharrezkoa den beste ikuspegi bat da. Besteak beste, helburu berberarekin, hauei buruzko gomendioak eta jarduketak dira nabarmentzekoak:

- Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparrua⁶.
- Artisten nazioarteko mugigarritasuna.
- Ingurune digitala⁷.
- Finantzaketa⁸.
- Jasangarritasuna⁹.

6_ KEBen txosten honetan, begirada zabal bat eskaintzen da eta gaiari buruzko Europako agenda aipatzen da: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_arte_irakaskuntza_2019/eu_def/index.shtml

7_ KEBen txosten honetan, begirada zabal bat eskaintzen da eta gaiari buruzko Europako agenda aipatzen da: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_argit_digitalizazioa_2016/eu_def/index.shtml

8_ KEBen txosten honetan, begirada zabal bat eskaintzen da eta gaiari buruzko Europako agenda aipatzen da: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/finantzaketa_ereduak_2019/eu_def/index.shtml

9_ KEBen txosten honetan, begirada zabal bat eskaintzen da eta gaiari buruzko Europako agenda aipatzen da: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_argit_kultura_jasangarrita/eu_def/index.shtml

7. Ondorio gisa

7.1. Sektorerako aukerak

“Artistaren Estatutu Berriaren” proposamenaren helburuak zera izan behar du: artistek eta kulturako profesionalak bidezko lan-baldintzak eta bizi-baldintzak dauzkatela ziurtatzea, baita gainerako langileen eskubide (eta betebeharrak) berberak ere; Artistaren Estatutua ez da inola ere pribilegioa. Gaur egun, kasu askotan ez dago bidezko eta berdintasunezko baldintzarik, ez dagoelako sektoreko lanaren ezaugarrietara, adibidez, behin-behineko kontratuen ugaritasunera eta diru-sarreraren ezegonkortasunera, egokitutako araudirik. Asmoa ez da zehazki “arteaz bizi” ahal dela ziurtatzea; aitzitik, horretan aritzea, lanaldi osoan zein ez, modu erregularrean zein ez, beste edozein aukera bezain irisgarria izatea nahi da, sortzaileak zigortzea saihestuz. Hori bereziki garrantzitsua da kulturaren balio publikoa aintzat hartuta: haren onura sozialen alde egin nahi bada, sorkuntza artistiko eta kulturalaren baldintza egokiak ziurtatu behar dira.

Interesgarriro, arte- eta kultura-lanaren berariazotasunengatik zein prekaritateagatik, artistek eta kultura-arloko profesionalak okupazio orokorraren (zeina arte- eta kultura-sektoreko ohikoaz guztiz bestelakoa baita) arau batekin lotura estua duen gizarte-babesaren ondorioak (diskriminazioa) pairatzen dituzte. Hori dela-eta, sektoreko langileen egoerak paralelismo ugari ditu beste sektore batzuetako langile askoren egoerarekin. Oro har, azken hamarkadetan ekonomian eta lan-merkatuetan egon diren aldaketen ondorioz, areagotu egin dira prekaritatea eta lan-errentaren bidez nor bere gizarte-arriskuak estaltzeko adina diru-sarrera izateko eta kotizatzekeo zailtasuna.

Erakundeen arloan, testuinguru bakoitzaren mendekotasun historikoa dela-eta, errazagoa da sektorerako berariazko arauketa bat imajinatzea; hala ere, estrategikoki garrantzitsua izan daiteke sektoreko errebindikazioak beste batzuekin bat etor daitezkeela atzematea.

Nolanahi ere, erraza da igartzea bide luzea egin behar dela. Proposamenak ugariak dira, eta aurrerapenak, urriak oraindik. Gainera, azpibatzaileak egindako proposamenek ez daukate beti legezko arau erraz bihurtzeko adina definiziorik. Zehaztasun txikiko neurriak daudenez, oraindik eztabaida politiko ugari egin beharko dira, eta horrek aurrerapenak blokeo (edo ahalbidetu) ditzake. Edo, bestela, zehaztasunik ezak blokeo-egoerak sorraraz ditzake praktikan. Adibidez, ildo horretan, sektorearen heterogeneotasuna beti txertatu behar den premisa da, legezko zurruntasunak blokeoak izan ez daitezken.

Zalantzarik gabe, eboluzioa onuragarria da. Nazioarteko testuingururako begiradak adierazten du “Artistaren Estatutu Berriaren” proposamenak egon daitezkeen jarduketaren eremu guztiak biltzen dituela. Dena den, proposamen hori egotea eta are 26/2018 LEDa onartuta egotea ez dira inola ere amaiera-puntuak. Hain zuzen ere, 26/2018 LEDaren onespenez agerian jartzen du arazoak herrestan eraman nahi ez badira abiapuntu batzuk konpondu behar direla. Adibidez, definizioen estutasunen ondoriozkoak



edo interpretazio zurrunez eragindako anbiguotasunen ondoriozkoak. Horrek orobat agerian jartzen du eragile guztiak trebatu, informatu eta sentsibilizatu behar direla fenomeno eta arauketa konplexuen aurrean.

Hori guztia dela-eta, sektorearen jarraipenak eta mobilizazioak aurrera egiteko oso garrantzitsuak izaten jarraitzen dute.

7.2 EAErako aukerak

Legegintzaren arloan, Espainiako Estatuko Diputatuen Kongresuko azpibatzordearen txostenak aztertu beharreko proposamenen abiapuntua ezarri beharko luke, baita EAErako ere.

Arloan aurrera egiteko asmoz, hona hemen EAErako aukeretako batzuk:

- Estatuko lege-garapenean liderra izatea.
- Zerga-sistemaren eremuan bere eskumenekoak izan daitezkeen alderdiak garatzea (PFEZa).
- Beheragoko administrazio-mailetan, adibidez, tokikoak, aldaketak bultzatzea.
- Alderdi instituzionalak indartzea, lege-garapenaren arau-eremutik kanpo (sektorearen antolaketa-gaitasuna sendotzea).
- Artisten kontratazioaren arloan eredu izatea.

Horrela, Estatuko ekimenekiko alerta-jarrera eduki daiteke jarrera pasiborik izan gabe. Kontu batzuetan aurrera egin daiteke, bereziki sektorearen antolaketan eta partaidetzan.

Ildo horretan, **zerga-sistemaren** arloan, honako hau azpimarra daiteke:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak PFEZari dagokionez beraren araudiarekin lan egiteko tartea eskaintzen du (baina ez BEZari edo Sozietateen gaineko Zergari dagokionez). Nabarmentzekoa da euskal foru-arauak jada barne

hartzen dituela Diputatuen Kongresuko azpibatzordeak gastuen kenkariei buruz egindako gomendioetako batzuk.

- Nolanahi ere, azpibatzordearen txostenean inspiratutako neurri berriak euskal lege-testuinguruan sartzeari buruzko azterketa juridikoak jarduteko argibide batzuk eskaini ditzake, bai kenkari eta salbuespenei buruz bai errenta jakin batzuei tasak aldatzeari buruz.
- Txostenaren gomendioetan jasota ez dauden arren eta langile batzuei (autonomoei) bakarrik eragingo lieketen arren, toki-mailatik sektorearen aldeko neurriak susta daitezke, artearen eta kulturaren arloko eragileei hobari bereziak emanaz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZn), Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZn) edo Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan (EIOZn).

Lan-babesari eta Gizarte Segurantzari dagokienez, EAEk jarduteko gaitasun txikia du, baina badauka tartea. Ildo horretan, sektorearen antolaketa sustatuz egin daitezkeen lana da bereziki azpimarragarria. Zehatz-mehatz, honako hau egin daiteke:

- Artisten eta kultura-arloko profesionalen elkarrekin topatzeko eta lan egiteko gune bat dinamizatzea, Artistaren Estatutu Berriaren garapenari dagokionez, bai Estatuko garapenen jarraipena egiteko bai autonomia-mailan neurriak arakatzeko eta ituntzeko mekanismo gisa.
- Maila guztietan (langileak, autonomoak, enpresak, sektoreak...) sektorearen antolaketa eta hiru aldeko topaketa (Administrazioaren, enpresen eta langileen artekoa) sustatzea.
- Administrazioak kontratu-eremuko jardunbide egokien kodeak susta ditzake edo, modu orokorragoan, sentsibilizazio-kanpainak bultzatu, Diputatuen Kongresuko azpibatzordearen txostenak proposatzen duen ildotik:
 - Enpresaburuen eta langileen artean, baina artistekin eta kultura-arloko profesionalekin lan egiten duten teknikari publikoen artean ere bai, haien berriarazotasunak (finantzaketari, profesionalizazioari, nazioartekotzeari eta abarri dagokienez) aintzat hartu gabe.
 - Kontratazioaren, lan-osasunaren edo sektorearen ezagutza orokorraren arloan.



- Autonomia-mailan hitzarmen kolektiboak gara daitezke; hala ere, hori sektoreko langileen eta enpresen antolatzeko gaitasunaren menpe dago.
- LANBIDEren bitartez, artisten eta kultura-arloko profesionalen prestakuntza hobetzeko mekanismoetan aurrera egin daiteke, lanbide-trantsizioa errazteko eta sektoreko eskaintza eta eskaria harremanetan jartzeko, lan-kontratazioaren alde egiteko asmoz.

Sektoreak sindikatueta eta profesionalen elkarteetan antolatzeko duen gaitasuna hobetzea sektorearen hobekuntzan lan egiteko zeharkako bidea da; izan ere, erdiets daitezkeen hobekuntza eta lorpen asko antolaketa instituzionalaren menpe daude.



Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA